

BAKARTASUNA ITXARO BORDAREN OBRAN

Katixa Dolhare

Bordale 3 – Michel de Montaigne Unibertsitatea, «Modernités» ikerlan taldea
katixa.dolhare@yahoo.fr



Laburpena || Bakartasuna da Itxaro Bordaren idazlanetan agertzen den gai nabarmenetarik bat. Gai hori konplexua izanez eta era ezberdinetan azaltzen denez Itxaro Bordaren obran, lehenik nozio hori Mendebaldeko literaturaren historian kokatuko dugu, hobeki ulertzeko interesatzen zaigun obraren modernitatea zertan datzan. Aztertuko dugu ondotik bakartasuna zein manera paradoxikotan agertzen den Itxaro Bordaren liburuetan, bai eta gai horri lotuak zaizkion adierazpide arazoak azpimarratuko ere. Azkenik, beti Itxaro Bordaren unibertsoko bakartasunaren ildoak aitzurtuz, konparatuko ditugu Itxaro Bordaren hitzlauzko eta hitzneurtuzko lanak, nabarmenduz bere eleberrien ustezko ausardia eta modernitate handia.

Hitz-gakoak || Bakartasuna | Itxaro Borda | Modernitate | Eleberri | Olerki | Paradoxa.

Abstract || Solitude is one of the most obvious subjects in Itxaro Borda's works. Since it is a complex theme that takes different forms in her writings, we will first situate the notion in Western literature, in order to better understand the basis of Itxaro Borda's modernity. Then, we will study the different and paradoxical aspects of solitude in the author's books, and underline which problems related to expression are linked to that subject. Finally, following our thoughts about solitude in Itxaro Borda's universe, we will compare the writer's poetical and prosodic works, so as to underline where, in our opinion, lies the great audacity and modernity of her novels.

Keywords || Solitude | Itxaro Borda | Modernity | Novel | Poetry | Paradox.

It is possible to be alone and not to be alone at the same moment.

P. Auster

The Invention of Solitude, 2005

0. Sarrera

Itxaro Bordaren olerki, eleberri eta narrazioetan agertzen den gai nabarmenatarik bat da bakartasunarena. Idazleak berak aitortu zion Ana Urkizari: «bakartasuna da gehien galdezkatzen dudana alorra» (Borda, 2006: 299). Bakartasuna kontzeptu anizkuna da, batzuetan bozkariagarria, bestetan etsigarria, hots, Octavio Pazek adierazi zuen moduan, kontzeptu «labirintikoa» da (Paz, 1959)¹, ondoko nozio hauek ere bil ditzakeelako, besteak beste: kontenplazioa, meditazioa, iluminazioa, barne-bakea, zorion egoista, baina baztertzea, bazterratzea, erbesteratzea, barnekoitasuna, solipsismoa, erokeria, misantropia, paranoia, eskizofrenia, ezberdintasuna, anormaltasuna ere. Gai zabala da beraz, eta Itxaro Bordaren obran landuenatarik denez, azalpen bat baino gehiago bideraraz dezake. Ikerketa honetan, gogoeta pertsonal bat proposatuko dugu bakartasunaz Itxaro Bordaren obran: nahita mugatuko dugu gure azalpena arlo filologikoan, idazlearen liburuez irakurle gisa dugun hartze literarioa soilik aurkeztuz, jakin arren beste hausnarketa aberats franko egin daitezkeela Itxaro Bordaren idatziez, batez ere psikoanalisi, feminismoa, postestruturalismoa eta postmarxismoa bezalako kritika tradizioei erreferentzia eginez². Saiatuko gara, lehenik, Itxaro Bordaren liburuetan bakartasunaren itxura eta ezaugarriak identifikatzen. Frogatuko dugu, ondoren, gure ustez Itxaro Bordaren hitzlauzko testuetan, hitzneurtuzkoetan ez bezala, eta batez ere Amaia Ezpeldoiren abenturetan, bakartasuna era arrunt moderno batez interpreta daitekeela. Alabaina, lan honen hondarrean erakutsi nahi genuke Itxaro Bordaren olerkietan bakartasuna idazlearen barne esperientzia eta oroimen intimo adierazle gisa agertzen dela, ohiko manera liriko, zuzenean entzungarri eta, beraz, irakurlegoarekin kolektiboki eta elkartasunez errotik partekagarri baten bidez. Alderantziz, iruditzen zaigu narrazioetan, eta bereziki eleberrietan agertzen den bakartasuna ezin kantagarria denez, eta beraz zeharka baizik komunikagarria ez denez, ez zaiokeela ondorioz irakurlego bildu bati zuzendua, baizik eta, funtsez eta paradoxikoki, gehiago kantatu ahal edo nahi ez duten idazle garaikideenen obren ildotik, Maurice Blanchotek nabarmendu zuen bezala, irakurle bakartiek «adiskidetasun» minberaz osatu «ezin aitortuzko komunitate»-ari (Blanchot, 1971; 1983). Beste molde batez errateko, gure aburuz Itxaro Bordaren olerkiek irakurlegoari nolazpaiteko salbamen kolektibo bat dakarkiokete –eta argi da Euskaldun eta euskaradunok kolektiboki baizik ez gaitezkeela salbatuko–; haren nobelak, aldiz, euskaldun eta euskaradun komunitatearentzat segur galbide, salbagarri zaizkioke haatik irakurle bakartiari, bere intimitate propio eta ezin partekatua urratu eta askaraziz.

OHARRAK

1 | Itxaro Bordak liburu horren aipamena egiten du «Jump!» artikuluan (Borda, 2007c: 22).

2 | Jarrera hori Bordaleko Michel de Montaigne Unibertsitateko «Modernités» laboratorioraren une honetako gogoetekin bat dator: literatura garaikidean dauden kontradikzio, aporia eta paradoxak ikertuz, bereziki lehen pertsonan idatziak diren obra poetiko eta narratiboetan, ikusi nahiko luke ohiko kritika bideak zein neurritan saihestu daitezkeen. Ikus Presses Universitaires de Bordeaux argitaletxeak 2013ko abenduan argitaratuko duen *Apories, paradoxes et autocontradictions: la littérature et l'impossible* bilduma.

1. Zedarri zenbait

1. 1. Bakartasuna literaturan, modernitatearen ezaugarri

Lan honen atarian, ohar historiko zenbaitzuen oroitaraztea beharrezkoa iruditzen zaigu Itxaro Bordaren obran agertzen den bakartasuna perspektiban ezartzeko, hobeki ulertzeko eta, gure frogabidearen hondarrean, hobeki kokatzeko literatura modernoan.

Dominique Rabaték *L'invention du solitaire* bildumaren aitzin-solasean oroitarazten duen bezala (Rabaté, 2003: 7-21), bakartasuna –izan olerkitako ahots lirikoarena, narraziotako narraztaile edota pertsonaiena, ala idazlea berarena– literatura modernoaren ezaugarri nabarmenatarik bat da. Hurbil eskuragarri dauzkagun liburu garaikide gehienek egiten dute horren aipamen. Kafkak Feliceri idatzi ziona, adibidez:

Tu m'as écrit un jour que tu voudrais être assise auprès de moi tandis que je travaille; figure-toi, dans ces conditions je ne pourrais pas travailler (même autrement je ne peux déjà pas beaucoup), mais là alors je ne pourrais plus du tout travailler. Car écrire signifie s'ouvrir jusqu'à la démesure; l'effusion du cœur et le don de soi le plus extrêmes [...]. C'est pourquoi on n'est jamais assez seul lorsqu'on écrit, c'est pourquoi lorsqu'on écrit il n'y a jamais assez de silence autour de vous, la nuit est encore trop peu la nuit. [...] J'ai souvent pensé que la meilleure façon de vivre pour moi serait de m'installer avec une lampe et ce qu'il faut pour écrire au cœur d'une vaste cave isolée [...] Que n'écrirais-je pas alors ! De quelles profondeurs ne saurais-je pas le tirer! (Kafka, 1972: 282).

Samuel Beckették izkiriatu zuen, Marcel Prousten obran egin zuen saiakeran: «La pulsion artistique ne va pas dans le sens d'une expansion mais d'une contraction. L'art est l'apothéose de la solitude» (Beckett, 1990: 75). Paul Austerrek 1982ko bere lehen liburua *The Invention of Solitude* izendatu zuen. Eta Emmanuel Hocquard idazle frantsesak haxe dio «solitude» hitzaz:

Avant de désigner un fléau social à la mode, le mot a été (et demeure) un des grands fléaux poétiques. Un de ces mots qu'il faut retirer du langage et donner à décrasser avant de le remettre en circulation. Gilles Deleuze, par exemple, s'y emploie quand il dit que son rôle de professeur a été d'apprendre aux étudiants (en quête de communication parce qu'ils se sentent seuls) qu'ils doivent être heureux de leur solitude. Qu'ils ne peuvent rien faire qu'en fonction de leur solitude. «Ça c'était mon rôle de professeur, les réconcilier avec leur solitude» (Hocquard, 2001: 411).

Erran daiteke, beraz, bakartasuna gaurko idazle garrantzitsuenek jorrazten duten kezka nagusienatarik bat dela, eta haien ildotik du Itxaro Bordak ere gai hori karrakatzen («décrasser», dio Hocquardek).

Azpimarratu beharra da Dominique Rabatéren testuaren jarraian (Rabaté, 2003: 7-21) gai literario horren sortze eta garapena

indibidualismoaren historiari lotua zaiola. *Solitarius* hitzaren historiari so egiten badiogu, ohartzen gara hiztegi erlijiosotik heldu dela: XII. mendean, *solitarius* deitzen zen jendartetik aparte toki huts batetara bizitzera zihoana (batez ere basamortura) bere salbamen espiritualaren prestatzeko. Horregatik erran daiteke bakartia funtsez misantropoa eta melankolikoa dela, gizakiekiko harremanak galbidetzat baitauzka eta, pertsona aparta bailitzan, bizitza Adam eta Evaren eroriko aitzineko bozkario bila hingatzen baitu (ikus klasikoan obrak: Montaigneren *Essais*, Pascalen *Pensées*, La Bruyèreren *Caractères*). Manera profanoago batez, Descartsek *Discours de la Méthode* famatuan erakutsi zuen egiazko jakitatearen erdiesteko, erran nahi baitu nolabaiteko salbamen intelektualaren lortzeko, isolamendu erradikalaren esperientzia egin behar zela.

Argien Mendean, hori zelarik soziabilitatearen mendea, bakartasunak konnotazio ezkorra jaso zuen: *Entziklopediak* goraki gaitzetsi zuen fraide eta komentuen debaldekeria eta *La Religieuse* nobelan Diderotek hedarazi zuen bakartasuna anormaltasuna eta nahasmendu moralaren marka zelako ideia. Jean-Jacques Rousseauk, bere obraren bidez, ihardetsi zion Dideroti, lehenik gizabanakoak errespetatuko zituzkeen *Kontratu sozial* bat asmatuz eta berantako, bere delirio paranoikoaren eraginez bere burua gizartearengandik baztertu zuelarik, bakarrik bizitzeko arte bat moldatuz (*Les Confessions*, *Les Rêveries du promeneur solitaire*). Immanuel Kantek bezala, aipatu lanetan Rousseauk erakutsi nahi izan zuen norberak lehen lehenik bere kontzientzia jarraitu behar zuela, beharrez gizarteak inposatu legeei desobedituz. Indibidualismo modernoa horrela sortu zen. Ondotik, Rousseauen ideiak erradikalizatuz, erromantikoek bakardadea goraipatu zuten, jendartearen eta norberaren garapen pertsonala mugatzaile datekeen Historiaren arteko bereizkuntza gomendatuz eta izadira ihes eginez. Gero, Baudelairek asmatu zuen hiri handietako poeta bakartiaren itxura, saldoaren anonimotasunean galdua, paradoxikoki beste gizakiekin komuniatzeko gai dena. Bakartasuna despertsonalizazioarekin uztartu zen orduan Baudelaireren jarraitzaileen obretan³; Dostoievskiren liburu ezagunaren tituluaren hitzak mailegatuz, «lurpeko monologoa» garai hartan hedatu zen, bakartasuna beste gizakiekin parteka ezina delako seinale. Azkenean, gaurko literaturan, bakartasuna kontraerranetan korapilatua da: norberak bere nortasunaren berezitasuna ikusten du, baina ohartzen da ere ez dela besteengandik aparte bizitzen ahal. Bestela errateko, gizabanakoak monaden gisa agertzen zaizkigu (ate eta leihorik gabeko izakiak), baina bakartasun hori, halere, besteekin edo besteengan dagoela ukalezina dela konturatzen gara: «ni» bat ez da soilik izaki bereizi bat, bil ditzake beste nortasunak bere baitan («Je est un autre», zion Rimbaudek) edo literaturaren bidez bizi daiteke beste «ni»-en baitan. Nahi ala ez, gizabanakoaren bakartasuna bere irudikoa den eta aldi berean ez den besteen bakartasunari lotua zaio.

OHARRAK

3 | Hugo Friedrichek *Structure de la poésie moderne* liburuan (Friedrich, 1999) maisuki azaldu zuen modernitatearen ezaugarri den despertsonalizazio hori du ere bilatzen Itxaro Bordak: «Nahi nuke beste gauza batetan ere sinetsi: norberak bere burua ezabatzeraino idatzi ahal izatea. Ni, lehen pertsona erabiliagatik, ez hor izatea pertsona bakun gisa, ni hori hor izatea ni izanez eta gu izanez aldi berean, gu orain, gu atzo, gu bihar» (Borda, 2010). Ikus ere gai horretaz Jean-Christophe Baillyren gogoeta interesgarria «L'action solitaire du poème» testuan: «Au moment *t* du commencement du poème, il n'y a rien, mais ce goulot d'étranglement n'est pas un filtre par où s'écoule un sujet qui se rêve, c'est un bief par lequel le monde entre» (Bailly, 2011: 18).

Bakartasuna plurala eta paradoxikoa agertzen da, beraz, gaurko literaturan, eta obra modernoetan ahotsen aniztasuna bideratzen du, botz eta doinu biderkatze molde ezberdinen bidez.

Bestalde, bakartasuna gai literario nagusi gisa Roussearekin agertu zenean, jendartean indibidualismoa sortu zen garai berean, ondoko kezka hau ezinbestez azaldu zen, orain arte ezin konpondua dagoena, eta modernitate literarioaren oinarriko ezaugarritzat har dezakeguna: norberak nola adierazi bere barne pertsonal berezi eta berezia komunitatearenak diren hitzen bidez? bere bakoiztasun propioa zein manieraz idatzi mintzairak inposatzen dizkion belaunaldi eta belaunaldiek higatu adierazpideen bidez? Roussearekin agertu galdera horiek idazle garaikide handienek bultzatu dituzte, batez ere Bigarren Gerla ondoko idazleek, eta partikulariki, zein dorpeki, idazle alemaniar eta austriarrek. Kezka horretarik dator ere idazle madarikatu edo exiliatuaren irudia, XIX. mendetik hona. Ondorioz, gero eta maizago, idazki sakonenak ez dira gehiago bat batean komunikagarri izateko eginak: Stendhalek *La Chartreuse de Parmen* hondarrean zion bezala, plazaratuak dira noizbait berantago ulertuko dituzketen *happy few* batzuentzat.

1. 2. Itxaro Bordaren obran agertzen den bakartasunaren itxura anitzak

Gure gizarte garaikidean, Dideroten ustearen ildotik, bakartasuna gaitz gisa ikusia da eta gizaki bakartiak presuna minbera eta mindutzat hartzen dira, funtsean maiz berek ere hala sentitzen dutelarik beren burua. Itxaro Bordaren kasuan bakartasunaren alde minkor hori ardura agertzen da, bai idazlea beraren jarrera literarioan, bai eleberrietako pertsonaien edo olerkietako ahots lirikoaren bidez. Alabaina, Itxaro Borda bazterreko idazlea dela ezin ukatua da, literatura unibertsalean bistan dena (euskaraz idazten duelako), baita euskal literaturan ere. Hain xuxen, euskal literatur sisteman, baita Iparraldeko literatur azpi-sisteman ere, periferikoa gelditzen da⁴ emaztea delako (eta ez gizona), ez baitu unibertsitateko formakuntza literarioik (historia ikasi zuen), ez baita unibertsitarioa, ez baitu lan biziki gogo-aberazgarri bat egiten (lan arrunta egiten du Postan), Iparraldekoa delako (Hegoaldeko zentro literarioetatik aparte dago, beraz) eta Iparraldean irakurle biziki guti duelako. Bestalde, Itxaro Bordak bere liburuetan jorratzen dituen gaiak biziki antikonformistak eta probokatzailak dira (emazte homosexualitatea; lana, familia, gure ohiko gizarte gakotu, uniformizatu eta uniformizatzailearen aurkako kitzika, bai eta kapitalismoa eta kontsumismoarena ere; *Euskaldun fededun* kontzeptuaren zangopilatzea; euskal erakundeenganako, abertzaleenganako eta orokorrean ustezko euskara «garbia» edo «gipuzkeraz egindako batua»-ren⁵ aldekoenganako irria; Euskal Herriaren itxura etnozentriko eta sakralizatua beldurgarriki inposatu nahi dutenenganako trufa; etab.), horrela irakurle anitzengandik

OHARRAK

4 | Gai horri buruz, ikus Ur Apalategiren ondoko artikulua hau: «Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa)» (Apalategi, 2005: 9-21).

5 | Hauxe zion Itxaro Bordak Ana Urkizari: «Eta egunen batean eginen bada zinezko batua, ez gipuzkeraz egindako batua, baizik eta denentzat baliagarria dena, Amaia Ezpeldoiren liburuan agertzen den horren itxura handia izanen lukeela iruditzen zait. Gertatzen dena da, ez dela egiazko batua egin nahi» (Borda, 2006: 313).

gaitzespen eta bazterreratzea eraginez. Ondorioz, Itxaro Bordaren liburuetakoa pertsonaia eta ahots narratibo edo lirikoak usu umezurtzak, beren herrian moralki, sozialki eta linguistikoki arrotzak, misantropoak, melankolikoak eta zalantzaz beterikoak agertzen dira: bazter fede eta ideologiakoak batetik, eta nortasun geografiko, nazional, politiko, sozial, psikologiko, sexual eta linguistiko finkatu gabekoak bestetik (maiz nortasun paradoxikokoak dira, bikoitzekoak edo anitzekoak). Horregatik bere buru bakarraz segur den gure gizartearengandik ez maitatuak azaltzen dira, barka ezinak, gutxietsiak, arbuatuak, minduak. «Halatan, aitor dut, bakartia, bakartua, sekula ez barkatua sentitzen naizela», dio %100 *Basqueko* ahots narratiboak (Borda, 2001b: 77). Narratzaileak holaxe adierazten du bere bakartasuna bortxazkoa dela, besteen aurreiritzi eta gaiztakeriek eraginda delako.

Baina Itxaro Bordaren obran hain jorratua den bakartasun gai hori ez da beti gaitz eta min gisa agertzen. Ezen, Rousseau eta erromantikoen jaiduraren ildotik, idazle jarrera aldarrikatu gisa azal daiteke ere. Hain xuxen, Itxaro Borda nahita gelditzen da zirkulu literarioetarik aparte: «periferia horretarik idazten dut, idazleetan ere periferikoa naizelako. Baina hori da neure nahia», dio Itxaro Bordak (Borda, 2007d). Postan denbora erdiz segitzen du lanean errealitatearekin kontaktua mantentzeko eta bere idazlanak bizitzaren dorpetasunean hobeki errotzeko. Bestalde, bazterrean egoteak askatasuna baimentzen dio nahi duen guzia nahi duen moduan idazteko, gizarte konformistan toki on batean mantentzeko beharrean diren idazleak ez bezala, horiek beren burua literarioki mutuarazten edo totalarazten dutelarik; eta libertate hautu hori, eragiten dituen erosotasun sozialen sakrifizioetarik at, pribilegio handia da idazlearentzat («opari» bat, dio Itxaro Bordak berak –Borda, 2012c–), ezkiriaren ahal duelako frustrazio gehiagokorik gabe nahi duen gaiak, genero literarioekin nahi duen bezala jostatuz, eta nahi duen hizkuntza nahi duen eran erabiliz, eredu sozial eta akademikoetarik kanpo landuz bere barne unibertso eta estiloa⁶. Idazlearen bakartasun hori ez da haatik erromantikoen bakartasun heroiko eta lirismo handiko hura bezalakoa: despertsonalizazio eta anonimotasunean urtzen da, Maurice Blanchotek zioen bezala «bakartasun esentziala» aurkitzea baitezpadako baldintza modernoa delako «espazio literarioan» sartzeko (Blanchot, 1955). Bere gisara, frantses olerkigintza modernoaren bultzatzaile nagusia izan zen Mallarmék hauxe idatzi zuen ere: «Mesdames et Messieurs, sait-on ce que c'est qu'écrire ? Une ancienne et très vague mais jalouse pratique, dont gît le sens au mystère du cœur. Qui l'accomplit, intégralement, se retranche» (Mallarmé, 1945: 481). Erran daiteke nolabait hainbat idazle modernoren antzera Itxaro Borda «ezkongabeko idazlea» dela (Bertrand, 1996) eta bakartasun horri zor diola bere apartekotasuna.

Gainera, erran beharra da Itxaro Bordaren obran agertzen den ahots

OHARRAK

6 | Ikus ere Itxaro Bordaren ondoko hitz hauek: «Periferiako idazle izateak erran nahi du, batetik, literatur zurrumbilo horren erdian ez izatea, ziklonaren begian ez izatea. Beraz, libertate gehiago ukaitea gaiekin, hizkuntzarekin eta gure harreman eta iritzi politikoekin. Baditu abantailak» (Borda, 2010).

eta pertsonaien misantropia azalekoa baizik ez dela, egiaz beste gizakienganako maitasun eta urrikalmendu hunkigarria askotan nabaritzen zaielako, beren jendetasuna paradoxikoa izan arren. Funtsean, Itxaro Bordak Amaia Ezpeldoiz hauxe dio: «Oro har, oso humanoa da bere itzal eta argiekin» (Borda, 2007d)⁷. Hain xuxen, Itxaro Bordaren pertsonaia fribolo, nomada eta aldakorrek azaleko harremanak baizik ez ukanez, gogorkiago jasaten dute besteekiko bizibehar soziala; beren eta beren parekoen barne sentimenduen ñabardurak ments izanez, burutik behera jasotzen dituzte jendearen samintasun, konplexu, gorroto, frustrazio eta ezinegonak, azaleratzen zaizkien bezain gordinki. Baina sustut azaleko harreman bortitz horietan dira pertsonaia horiek elkartzen eta ustekabean horrela dituzte partekatzen beren bakartasun existentzialak. Azaleko harreman horien bidez, pertsonaia guzien bakartasunak korapilatzen dira beraz, narratzailea eta irakurlearen baitan beste gizakienganako «sinpatia» (jatorrizko «konpasioa» edo «oinazearen partekatzea» zentzuan) sorraraziz. Itxaro Bordaren pertsonaien bakartasuna iragazkorra eta besteenarekiko ezin bereizizkoa agertzen da beraz. Orokorkiago, pertsonaia moderno horien nortasuna erabat nahasia, eskizofrenikoa eta paradoxikoa dela nabari da: hizkuntza kreolizatua mintzo dute, elkarren kontrako printzipio sozio-politikotan sinesten dute, bisexualak dira (bederen), erdi-hiritar eta erdi-baserritarrak dira, etab. Itxaro Bordaren eleberrietako protagonisten bakartasuna ez da, beraz, anakoreta batenaren gisakoa; paradoxikoki, bakartasun alteratua eta ezohiko maneraz jendekina da, beste izakien bakartasunen eraginetatik ezin bereizia delako. Ondorioz, Itxaro Bordaren eleberrietako pertsonaien arteko azaleko harremanak aztertuz, erran daiteke protagonista horiek misantropoak baino filantropoak direla errotik, nahiz eta filantropia horrek «esperantzarik gabeko maitasuna»-ren itxura duen (Borda, 2006: 290).

1. 3. Bakartasuna eta hizkuntza

Bakartasuna nozio konplexu eta paradoxikoa da, beraz, Itxaro Bordaren lanetan, batzuetan baztertzearen seinale mingarria, bestetan, paradoxikoki, jarrera jendekinaren marka hunkigarria. Kontraerran horrek ondorioak erakartzen ditu idazmoldean. Ezen, alde batetik, bere bakartasun propioaren adierazteko idazleak idazkeraren bidez erakutsi nahi du ez duela onartzen gizarte gakotu eta baztertzaileren hizkuntza, hau da, *Euskaldun fededunena*, lema ideologiko eta etnozentrizkoz beteriko abertzaleena⁸, *clichéz* jositako jendarte pasibo, liberal, kapitalista, kontsumitzaile, uniformizatu eta homofoboarena, ez eta linguista «garbitzaile»-ena edo finkatzen ari den «gipuzkeraz egindako batua»-ren sostengatzaileena ere. Hau hizkuntza berri baten asmatzeko erronka, bere bakartasunean hain berezia sentitzen den idazlearentzat! Baina bestaldetik, adierazi nahi du ere ez dela funtsezko bakartasun isolaturik, gizaki bakoitzak (antikonformista, *Euskaldun fededun*, gipuzkerazko

OHARRAK

7 | Itxaro Bordaren obran agertzen den bakartasun paradoxikoa (aldi berean bortxazkoa eta hautuzkoa, misatropikoa eta jendekina) detektibearen itxuran biziki ongi itxuratzen da. Alabaina, polizia-eleberritan dira aurkitzen protagonista bakartienak, lehen lehenik gaixtagina eta detektibeak (ikus Rabaté, 2003: 379-394). Amaia Ezpeldoiz izan daiteke, beraz, Itxaro Bordaren kontraerranez beteriko pertsonaia bakartirik enblematikoa.

8 | «Euskal kultura masa konpaktua eta uniformizatua dela sentitzen dut eta kudeatzaileek hori sustatzen dute. Merkatuari begira daude. Merkatua ase behar dute. Komunikabideek ere indar handia dute horretan. Gauza batzuk finkatuak dira, aspalditik, hiru edo lau lema, eta horiek ereiten dituzte. Lema horiek "Euskadiren alde", "herriaren alde", eta "etorkizuna" dira. Eta edo bizi zara masa konpaktu eta uniformizatu horretan edo eta masa horretatik kanpo zara. Eta kritikatzan dut beti» (Borda, 2006: 290).

batua erabiltzaile, aho bete lemazko abertzale ala kapitalista izan) berdinki baitarama berea, besteekeko azaleko harreman bortitzetan ustekabeen eta hunkigarriki parteka dezakeena. Helburu horren lortzeko, ezinbestekoa da beraz idazleak erabil ditzan denonak ditugun hitz higatuak, hauek baizik ez ditzaketelako adierazi gizabanakoen bakartasun existentzial berdinak. Ondorioz, ondoko paradoxa moderno honen aurrean dateke idazlea: hizkuntza berri bat irudikatzeko nahia bere berezitasun eta bereizitasun indibidualaren adierazteko; eta aldi berean, norberaren bakartasuna errotik nahasia eta beraz sozialki partekagarria delako ideiaren bideratzeko, denon mintzaira erabiltzeko beharra.

Desafio horri ihardesteko, Itxaro Bordak aniztasun linguistiko eta estilistikoa lantzen du bere liburuetan. Liburu batetik bestera eta liburu berean berdin, euskalki ezberdinak erabiltzen ditu, non ez duen, *Amorezko Pena Bañon* bezala, euskara batu berritzaile bat proposatzen. Erdarazko hitz eta erranmoldeak sartzen ditu ere bere lanetan eta autoitzulpengintzari lotzen zaio gero eta gehiago. Bestalde, ahots narratibo eta poetikoak aztertzen baditugu, ohartuko gara beti anitzak (eskizofrenikoak) direla: ironia eta konpasioa, alaitasuna eta iluntasuna, itxaropena eta etsipena, orainaren gozatzeko ahalmena eta melankolia uztartzen dira haien baitan, eta beti paradoxak edo kontraerreak bideratzen dituzte. Azkenik, gehitzen ahal dugu Itxaro Bordaren lan literarioen erreferentzia mundua bera ere anitza dela, idazleak bata bestearen ondoan ezartzen dituela konparazioan Axular eta Jelinek, Homero eta Wittig, Voltaire eta Bernhard, Delirium Tremens eta Mozart, erran nahi baitu euskal munduko eta atzerriko erreferentzia eklektikoak, unibertso biziki pertsonal eta aldi berean unibertsalki partekagarria osatuz. Itxaro Bordaren liburuetakoa ahotsek eta pertsonaiek adierazten duten bakartasun paradoxiko hura aniztasun linguistiko eta estilistiko horri esker bideratua da beraz, unibertso arrunt berezia baina, halere, irakurlearekin komunikagarria osatuz.

2. Eleberrien modernitate ohargarria

Itxaro Bordaren liburu poetikoak eta narratiboak bereiz aztertzen baldin baditugu, ohargarri da ez dutela bakartasuna gaia era berean bideratzen, eta bakartasunaren aipamen horrek ez dituela, beraz, olerki irakurlea eta eleberri irakurlea berdinki hunkitzen. Hain xuxen, Itxaro Bordaren poesia lirikoa da ohiko maneran (olerkariak berak bere lanak «arkaikotzat» dauzka⁹), erran nahi baitu metaforak, hitzen soinuak eta neurtitzen erritmoak landuak dituela; hots, poesia kantagarria eta zuzenean partekagarria da¹⁰, gutxienez gora irakurria izateko gogoia ematen duena («car même celui qui lit un poème est enclin à lui prêter sa voix pour un auditeur éventuel», dio

OHARRAK

9 | Xan Aireri eskaini elkarrizketa batean, Itxaro Bordak aitortu zuen: «Idazle arkaikoa naiz. Ez dut idazten niretzat bakarrik, baina oroitzeko. Herriko zaharrek horrela egiten zuten, eta nik ere bai!» (Borda, 2012c).

10 | Xan Aireri eskaini elkarrizketan, Itxaro Bordak zion *Noiztenka* liburuaz: «Munduari kantu bat da ere» (Borda, 2012c).

Walter Benjaminek –Benjamin, 1972: 138–). Ezaguna da funtsean bakarren musika talde eta kantarik Itxaro Bordaren olerkiak kantuz moldatu dituztela, idazlearen zorionerako¹¹; eta ezaguna da ere Itxaro Bordak noizbehinka poesia errezitaldiak eskaintzen dituela, musika lagun. Itxaro Bordaren olerkien ezaugarri horiek ondorioak dakarte bakartasuna gaia bideratzen duten moduan. Alabaina, ahots lirikoak bere bakardadea aipatzean, zuzenki jotzen du irakurlea beraren bakardadea: bere ezinegon eta zalantza existentzialak bizitza eta heriotzaren aurrean, bai eta bere nortasun bilaketa problematikoaren bihurturak eta kontraerreak adieraziz ere, Itxaro Bordaren olerkietako ahots poetikoak irakurleari sentiarazten dio bera ere, kezka berek barnea kitzikatzen dioten ber, zilegitasunez giza komunitatearen kide dela –kidetasun sentimendu horrek esplikatu lezake, beharbada, Ibai Atutxari iruditzen zaiola nazio nozio berritzaile bat asma daitekeela Itxaro Bordaren olerkiak irakurriz (Atutxa, 2010)¹² –. Fenomeno hori are gehiago nabari da olerki horiek publiko baten aitzinean kantatuak edo irakurriak direlarik, hots, eguneratuak direlarik *performance* moduan, orduan erraz senti baitezakete bai kantari edo irakurtzaileak, bai entzulegoak, hor dauden denen arteko konplizitatea baino gehiago datekeen giza anaitasun sakon bat.

Alderantziz, eleberriak ez dira zuzenean partekagarriak: zati bat edo beste irakur daiteke irrati mikrofono edo entzulego baten aitzinean, dasta gisa, baina funtsez osoki bakarrik eta isilean preziatzeko eginak dira, gizaki arrunt bakarti batek eginak dituelako. Walter Benjaminek «Le Conteur» testuan azaldu zuen bezala (Benjamin, 1972), ohiko testu lirikoak (olerkiak edo ipuinak) esperientzia komunikagarri batetik datoz (eta uler daiteke hemen «esperientzia» hitza Rilkeren moduan¹³) eta, beraz, dakarten irakaspen edo zentzua zuzenean adierazgarriak daude; haatik, Walter Benjaminen ustez, eleberriak ez dira esperientzia komunikagarri batetik sortuak, baizik eta neurritz gabeko bakartasun zolatik, eta ondorioz ez dira zuzenean partekagarriak edo transmitigarriak.

Écrire un roman, c'est exarcerber, dans la représentation de la vie humaine, tout ce qui est sans commune mesure. Au cœur même de la vie en sa plénitude, par la description de cette plénitude, le roman révèle le profond désarroi de l'individu vivant (Benjamin, 1972: 121).

Eleberriek bideratzen dituzten bakartasunaren itxurak, entzulego saldo baten aurrean zuzenean ezin partekatutako izanez, geroratuak baizik ez zaizkio beraz heltzen irakurle bakartiari. Ondorioz, nahiz ahots narratiboaren bakardadeari identifikatzen ahal den, bere burua ez dauka irakurle baten kidetzat: bakarrik eta bakarti sentitzen da bera bezain bakarrik eta bakarti irudi zaion ahots narratibo iragan eta zuzenean entzun ezinaren aitzinean. Olerkiak ez bezala, eleberriak ez dira, beraz, publiko multzoari bat-batean komunikagarriak eta ustekabeak, gizaki bakartiei zuzenduak baitzaizkie eta ez komunitate

OHARRAK

11 | «Hori da ene beste maitasun handietarik bat, olerkiak idaztea noizbait kantatuak izango direlakoan. Eta askotan hala suertatzen da, kantatuak dira, mugaren bi aldeetako kantariek hartzen dituzte, eta enetzat hunkidura handia da hori, emozioz handia» (Borda, 2010).

12 | Ibai Atutxak maisuki demostratu zuen Itxaro Bordaren olerkietan agertzen den bakartasuna nola lotzen ahal den euskal komunitatearekin. Horregatik ez dugu azterketa honetan demostrazio hori berriz hasi nahi eta gonbidatzen dugu irakurlea zuzenki Ibai Atutxaren idatzien leitzera. Bestalde, ez dugu Ibai Atutxaren tesi hori gehiegi aipatu nahi gure xedea bestelakoa delako: erakutsi nahi genuke ezin konponduzko kontradikzio bat badela Itxaro Bordaren olerkietan agertzen den bakartasun horren eta eleberrietan agertzen denaren artean. Lehena kantagarria denez, nazio-kideek jaso dezakete zuzenean, gogoetatzeko (nazio hori heterogeneoa izanik ere); bigarrena, aldiz, kantaezina denez, gizabanakoak modu existentzialistagoan irakurtzeko moduko iruditzen zaigu.

13 | «Car les vers ne sont pas, comme certains le croient, des sentiments (on les a toujours assez tôt), ce sont des expériences» (Rilke, 1980, 25-26).

(edo nazio utopiko) bat osa dezakeen entzulego bati, beharbada olerkiek baino gehiago jotzen dukete norberaren intimitate propioa bere berezi eta berezitasunean.

Ezaugarri horretan datza Itxaro Bordaren eleberrien modernitate handia, gure ustez. Ezen, egungo literatura garaikide eta berritzailean, ez da gehiago lirismo kantari edo kantagarri aurkitzen, baizik eta gehiago kantatzen ahal ez duen lirismo arrunt bat, paradoxikoki objektiboa dei daitekeena, helburutzat daukana gure kezka existentzialen alde gorde eta parteka ezinenak hobeki esploratzea (ikus konparazione Jean-Marie Gleizek «neo-poetak» eta «post-poetak» deitzen dituen ondoko olerkari hauen lan zorrotzak¹⁴, hastapen batean Estatu Batuetako olerkaritza minimalista eta objetibostatik anitz inspiratu zirenak: Anne-Marie Albiach, Claude Royet-Journoud, Emmanuel Hocquard, Nathalie Quintane, Victoria Xardel, besteak beste¹⁵; edo ondoko eleberrigile hauek, adibidez: René-Louis des Forêts, Thomas Bernhard, Elfriede Jelinek).

Idazle garaikide eta ausartenen obren ildotik, Itxaro Bordaren eleberrietan kantua eta musika agertzen direlarik, ez da batere olerkietan bezala lirismo subjektibo baikor baten sostenguz, baina alderantziz, lirismo horren behin betirako galtze etsigarriaren adierazteko: olerkietan, neurtitzen musika kantagarriak Jean Tortelek «une kalifikatuak» deitzen zituen bizitzako momentu aparta batzuk betikotzen laguntzen du (Tortel, 1973); eleberrietan, aldiz, kantuak eta musikak gehiago sinesgarri ez den betikotze literarioaren nostalgia eragiten die protagonistei (adibidez, Posa Ngakaren edo baleen kantuek *Ezer Gabe Hobe* eleberrian); funtsean, Itxaro Bordak ez ditu bere eleberriak kantuarekin lotzen, baizik eta «zalantza gabe, pinturarekin» (Borda, 2006: 304). Kontraste hori argi dagoela uste dugu aztertzen baldin badira basamortua eta mineraltasunaren irudiak Itxaro Bordaren liburuetan: adibidez, *Ogella line* bilduman, lzpazterreko hondartza mineralak ahots lirikoaren baikortasuna («*I hope so*» du izenburutzat azken olerkiak) eta bere buruarekiko bakea behin betiko islatzen du hitz motz eta neurturen bidez, ahotsaren bakartasunaren eta kezka existentzial guzien gainetik¹⁶; eleberrietan, aldiz, basamortu mineralak (Bardeetakoa, Estatu Batuetakoren bat edo berdin Isturitzeko harpea izan daitekeena) zorion amestu eta utopiko bat irudikatzen du (naturaz gaindiko agerkunde batena, artzain bakarti idealizatuarena edo Neanderthal garaiko gizaki fantasmagorikoena), hau da, orokorki, behin behineko zorion bat, laster desagertuko dena narrazioaren aitzinatze iheskor eta ezin gibeleratzearen bortxaz. Bestela errateko, Itxaro Bordaren olerkiak salbamen kolektiboaren zedarri izan daitezke irakurle edo entzulegoarentzat; bere eleberriak, aldiz, segurtasun existentzialik proposatu ezean eta pertsonaia herratuak bizitza lasaikaitzan (Pessoak aipatu «*desassossego*» hartan) azalduz, ez daitezke saldoarentzat galgarri baizik, baina bai salbagarri,

OHARRAK

14 | «Lirismo objektiboa», «neo-poesia» eta «post-poesia»-ri buruz, ikus Jean-Marie Gleizen *Sorties* (Gleize, 2009).

15 | Olerkari horiek guzien lanak ikustekoak eginak dira eta ez ahoskatzekoak, are gutiago kantatzekoak. Claude Royet-Journoudk erran zuen, adibidez, Lyoneko ENSean eskaini zuen *Les objets contiennent l'infini* liburuaren irakurketan, 2002ko apirilaren 17an: «la lecture à haute voix ne me paraît pas nécessaire, je pense que c'est un malentendu, dans tous les sens du terme» (irakurketa horren bideoaren begiratzeko, ikus http://cep.ens-lsh.fr/37471920/0/fiche___pagelibre/&RH=CEP-AUTEURS).

16 | Konpara daiteke Itxaro Bordaren basamortu eta mineraltasun fantasmagorikoa Mallarméren «monumentua»-renarekin, harek ere nolazpait bere olerkiak behin betikotasuna isla zezaten amesten baitzuen, «monumentuen» gisara.

modu paradoxiko batean, (Euskal) kolektibitatearen aitzinean bere zalantza existentzial aitorrezinezkoak argitzeko laguntza bilatzen duen irakurle bakartiarentzat.

Eleberriek irakurle bakartiari dakarkioten laguntza salbagarri hori, gure iduriko, protagonistek beren bizitza aporetikoari kontrapuntuan ezartzen dioten bizirauteko teman datza, hau da, beren barne oinaze eta kontraerran guzian, bai eta den bezalako gizarte gakotuan beren bizitzeko ezinegonaren gainetik ere, pertsonaia horiek beren desira intimoenak gauzatzen saiatzeko oldarrean, izan gorputz edo maitasun desira (besteek beren maitasuna onar zezatelako desira edo besteengandik maitatuak izateko desira), izan literatur desira. Hain xuxen, ohargarri da konparazione Amaia Ezpeldoik larrua jo nahi duela egoera korapilatsuenetan, bere eta besteekiko bakearen aurkitzeko maitasunak dakarren ahanztura sanoan (ikus adibidez Amaia Ezpeldoiek *Boga Bogan* sentitzen duen emazte polizia batenganako desira, gizarte euskaldunak orain arte debekatuko zukeena); gauza bera gertatzen zaio *Post Mortem Scripta Volante*ko narratzaileari literaturarekin, hau, haragizko harremana bezala, azken babeslekua bailitza munduaren zentzugabekeriari aurre egiteko. Hau dateke, beraz, Itxaro Bordaren eleberrien etika: norberak bere baitako desirak elikatzea –gauzatuko direlako esperantzarik gabe ere–, bereziki gorputz, maitasun eta literatura desirak, hauek baitaitezke gure gizartean bizirauteko bide seguruenak. Barne desira horiek irakurle bakartiarentzat baizik ez daitezke salbabide: ez diote esperantzarik ematen jokamolde eta ideologia kolektiboan –eta horregatik ez daitezke ideologia izpiren zurkaitz–, baina neurritz goiti autokontraerranez eta paradoxa misteriotsuz beteriko bere gizatasun arrunta onartzeko baimentzen diote; hots, nahiz eta aterabide dogmatikorik ez eskaini (sozialki, politikoki, linguistikoki), bere oinarrizko intimitatearen askatzen laguntzen dute⁹ –eta bide beretik, idazleak berak ere laguntza hori oparitzuz bere burua salbatzen du–:

Niretzat idaztea ene bizitza da, eta ene bizitza dela erraiten dudalarik ene bizitza dut idazten, baina badakit ene bizitza ez dela ezer funtsean, besteek ere bizitza antzekoak dituztela, hori da ene justifikazioa, ene salbamena. Eta hori dut partekatzen, hori dut ene hoberena irakurlegoari edo entzulegoari oparitzeko (Borda, 2010).

Erran daiteke orduan, Maurice Blanchoten gogoeten ildotik, Itxaro Bordaren eleberriek dakarten salbamen prekario horrek, gorputz, maitasun eta literatura desira intimoen elikatzean datzana, delako «adiskidantza» bat sorrarazten duela eleberrien egile eta irakurle bakartien artean (Blanchot, 1971), eta azken finean, paradoxikoki, gizaki bakarti horiek «ezin aitortuzko komunitate» bat osatzen dutela (Blanchot, 1983), «espazio literariotik» at nehoiz zuzenean bildu ahal ez daitekeena. Alabaina, Dominique Rabatéren hitzak mailegatuz, erran genezake irakurlearentzat Itxaro Bordaren eleberrietan agertzen den bakartasun korapilatsua datekeela, zein modernoki...

OHARRAK

17 | Beste era batean, gisa bereko ideia adierazi nahi izan zuen Francis Pongek «Les plaisirs de la porte» testuan: «Les rois ne touchent pas aux portes. Ils ne connaissent pas ce bonheur» (Ponge, 1995: 44): erromantizismo ondoko olerkari lirikoek ez dituzte haragizko plazer arrunt eta intimoak kontutan hartzen, horiek direlarik alta «gizaki bakartientzat» (Urruspil, 2010) bizirauteko biderik egokiena literaturarekin uztartuak direnean.

une projection mentale, une limite, un désir, un repoussoir, une tentation. Et sans doute est-ce là la tâche, encore plus nécessaire aujourd'hui, de la littérature: être l'espace de cette rencontre improbable entre deux solitudes, entre toutes les solitudes (Rabaté, 2003: 21).

3. Ondorioa

Azterketa honen hondarrean, ohartuak gara Itxaro Bordaren obran bakartasuna, izan idazlearena, izan ahots lirikoarena, izan eleberrietako pertsonaiena, beti paradoxikoa dela, baina ere, *solitarius* hitzaren etimologiaren jarraian, beti salbamen eta bizirauteari lotua zaiela. Saiatu gara erakusten batez ere ohiko lirismo subjektiboan idatzitako olerkietan agertzen den salbamena komunikagarri eta partekagarri dela, eta beraz salbamena dakarkiokeela irakurlego bati; eleberrietan agertzen den bakartasuna, aldiz, kanta eta parteka ezina, galbide zaiokeena argi bila datekeen gizarte bati, salbagarri zaiokeela haatik irakurle bakartiek osatu «ezin aitortuzko komunitateari», gizaki bakarti horiei erakusten baitie beren baitako gorputz, maitasun eta literatura desira arruntak direla gure gizarte gakotuan bizirauteko (autoreak usu idazten duen eran, «*survivor*» bat bihurtzeko) bidea. Halatan, histerikoki komunikatzeko beharrean den garai honetako jendarte etsituan, Itxaro Bordaren «espazio literarioan» idazleak eta beste irakurleek osatu «ezin aitortuzko komunitatearekin» oraino luzaz elkartzeko beste xederik ez dugu, hots, Itxaro Bordak segi dezan «komunikagaitza denaren interpreta» izaten, beste «ezkongabeko» autoreen gisara; ezen «si tout échange humain se heurte à l'incommunicable et n'est possible que médiatisé par le livre, il revient alors au spécialiste des mots, à l'écrivain, d'exprimer ce qui s'y refuse» (Bertrand, 1996: 203).

Bibliografia

Itxaro Bordaren liburuak

- BORDA, I. (1991): *Bestaldean*, Zarautz: Susa, «Poesia».
- BORDA, I. (1994): *Bakean ützi arte*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (1996a): *Bizi nizano munduan*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (1996b): *Amorezko pena baño*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (1998): *Orain*, Zarautz: Susa, «Poesia».
- BORDA, I. (2001a): *Entre les loups cruels*, Baiona: Maiatz.
- BORDA, I. (2001b): *%100 Basque*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (2002): *Hautsak errautsa bezain*, Baiona: Maiatz.
- BORDA, I. (2003): *Hiruko*, Irun: Alberdania.
- BORDA, I. (2005): *Zeruetako erresuma*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (2007a): *Noiztenka*, Baiona: Maiatz.
- BORDA, I. (2007b): *Jalgi hadi plazara*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (2009a): *Ogella line*, Tarbes: La malle d'Aurore, «Papiers déchirés de René Trusses».
- BORDA, I. (2009b): *Ezer gabe hobe*, Zarautz: Susa, «Narratiba».
- BORDA, I. (2011): *Post Mortem Scripta Volant*, Baiona: Maiatz.
- BORDA, I. (2012a): *Medearen iratzartzea eta beste poemak*, Baiona: Maiatz.
- BORDA, I. (2012b): *Boga Boga*, Zarautz: Susa, «Narratiba».

Itxaro Bordak eman elkarrizketak eta argitaratu artikuluak

- BORDA, I. (2006): «Itxaro Borda», in Urkiza, A., *Zortzi unibertso, zortzi idazle*, Irun: Alberdania, 276-333.
- BORDA, I. (2007c): «Jump!», *Argia*, 2082, 2007ko apirilaren lehena, 22, <<http://www.argia.com/argia-astekaria/2082/jump>>.
- BORDA, I. (2007d): «Errealitatea ezin da onartu fantasiaren bahetik baizik» (Juan A. Hernándezekin egin elkarrizketa), *El País*, 2007ko ekainaren 11, <http://elpais.com/diario/2007/06/11/paisvasco/1181590814_850215.html>.
- BORDA, I. (2010): «Muga bat ikusten duen bakoitzean esaten du "pasako gara"» (Uxue Alberdirekin egin elkarrizketa), *Argia*, 2230, 2010eko maiatzaren 16an, <<http://www.argia.com/argia-astekaria/2230/itxaro-borda>>.
- BORDA, I. (2012c): «Nire izpiritu intimoa munduan barna ibiltzen uzten dut liburuan» (Xan Airerekin egin elkarrizketa), *Berrria*, 2012ko uztailaren 24a, <http://paperekoa.berria.info/plaza/2007-11-21/042/909/nire_izpiritu_intimoa_munduan_barna_ibiltzen_uzten_dut_liburuan.htm>.

Beste idazki literarioak

- AUSTER, P. (2005): *The Invention of Solitude*, London: Faber and Faber.
- BECKETT, S. (1990): *Proust*, itzulp. Édith Fournier, Paris: Éditions de Minuit.
- DESCARTES, R. (2009): *Œuvres complètes 3*, Paris: Gallimard, «Tel».
- DIDEROT, D. (2009): *Le Religieuse*, Paris: Flammarion.
- KAFKA, F. (1972): *Lettres à Felice*, itzulp. Marthe Robert, Paris: Gallimard, «Du monde entier».
- HOCQUARD, E. (2001): *Ma haie*, Paris: P.O.L.

- LA BRUYERE, J. (1999): *Les Caractères de Théophrastes traduits du grec ; avec les caractères ou les mœurs de ce siècle*, Paris: Honoré Champion, «Sources classiques».
- MALLARME, S. (1945): *Œuvres complètes*, Paris: Gallimard, «Bibliothèque de la Pléiade».
- MONTAIGNE, M. (1999): *Essais*, Paris: Presses Universitaires de France, «Quadrige».
- PASCAL, B. (2004): *Pensées*, Paris: Gallimard, «Folio».
- PONGE, F. (1995): *Le parti pris des choses suivi de Proèmes*, Paris: Gallimard, «Poésie».
- RILKE, R.-M. (1980): *Cahiers de Malte Laurids Brigge*, itzulp. Maurice Betz, Paris: Seuil, «Points».
- STENDHAL (2006): *La Chartreuse de Parme*, Paris: Gallimard, «Folio Classique».
- TORTEL, J. (1973): *Instants Qualifiés*, Paris: Gallimard.
- URRUSPIL, B. (2010), *Gizaki Bakartiak*, Donostia: Elkar.

Saiakerak eta kritika liburu eta artikulak

- APALATEGI, U. (2005): «Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatur sistemaren argitan (eta vice versa)», in *Lapurdum*, X, 1-29.
- ATUTXA ORDEÑANA, I. (2010): *Tatxatuaren azpiko nazioaz: euskal identitatearen errepresentazioei buruzko azterketa Itxaro Bordaren poesian eta Hertzainaken punk musikan*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- BAILLY, J.-C.; GLEIZE, J.-M.; HANNA, C.; JALLON, H.; JOSEPH, M.; MICHOT, J.-H.; PAGES, Y.; PITTOLO, V.; QUINTANE, N. (2011): «Toi aussi, tu as des armes», *Poésie & Politique*, Paris: La Fabrique éditions.
- BENJAMIN, W. (1972): *Œuvres III*, «Le Conteur», Paris: Folio, «Essais», 114-151.
- BERTRAND, J.-P.; BIRON, M.; DUBOIS, J.; PAQUE, J. (1996): *Le roman célibataire*, D'A Rebours à Paludes, Paris: José Corti.
- BLANCHOT, M. (1955): *L'espace littéraire*, Paris: Gallimard.
- BLANCHOT, M. (1971): *L'amitié*, Paris: Gallimard.
- BLANCHOT, M. (1983): *La communauté inavouable*, Paris: Les éditions de minuit.
- BLANCHOT, M. (2000): *Pour l'amitié*, Tours: Farrago.
- COHN, D. (1981): *La transparence intérieure, Modes de représentation de la vie psychique dans le roman*, itzulp. BONY Alain, Paris: Seuil.
- DROLET, K.; GONIN, F.; LIZOTTE, A. (2004): *Le dialogue enfoui, Exercices de solitude*, Montréal (Québec), Canada: vlb éditeur, «Le soi et l'autre».
- FRIEDRICH, H. (1999): *Structure de la poésie moderne*, itzulp. Michel-François Demet, Paris: Le livre de poche, «Littérature».
- FROMENT-MEURICE, M. (1989): *Solitudes, de Rimbaud à Heidegger*, Paris: Galilée, «La philosophie en effet».
- FROMENT-MEURICE, M. (1992): *La chose même, Solitudes II*, Paris: Galilée, «La philosophie en effet».
- FROMENT-MEURICE, M. (2011b): *La haine de la solitude, Généalogie de la solitude en Occident*, tome 2, *De Rousseau à Houellebecq*, Paris: L'Harmattan, «Ouverture philosophique».
- GINESTOUS, T. (2011a): *L'amour de la solitude, Généalogie de la solitude en Occident*, tome 1, *De Homère à Robinson Crusoé*, Paris: L'Harmattan, «Ouverture philosophique».
- GLEIZE, J.-M. (2009): *Sorties*, Questions théoriques, Paris: «Forbidden beach».
- NAUDIN, P. (1995): *L'expérience et le sentiment de la solitude de l'aube des Lumières à la Révolution*, Paris: Klincksieck.

Nouvelle Revue de Psychanalyse (1987): «Être dans la solitude», 36, Gallimard, Paris, 1987ko udazkena.

PAZ, O. (1959): *Le labyrinthe de la solitude* suivi de *Critique de la pyramide*, itzulp. Jean-Clarence Lambert, Paris: Gallimard, «NRF».

PACHET, P. (1993): *Un à Un, De l'individualisme en littérature (Michaux, Naipaul, Rushdie)*, Paris: Seuil, «La couleur des idées».

POULET, G. (1977): *Entre moi et moi, Essais critiques sur la conscience de soi*, Paris: José Corti.

RABATE, D. *et. al.* (2003): *L'invention du solitaire*, Modernités 19, Bordeaux: Presses universitaires de Bordeaux.

SIGANOS, A. (1995): *Solititudes, écriture et représentation*, Grenoble: Ellug, Université Stendhal.